



Hernaniko ugaztun basati

IKUSTEZINAK

X.LARRETXEA eta X.INSASTI

Hernani inguruko mendi, baso eta zelaietan ibiltzen garenean animalia ugari ikusteko aukera izaten dugu. Arruntenak hegaztiak, intsektuak, ibai eta erreketako arrainak eta ugaztunak izaten dira, azken horiek batez ere etxe eta baserrietako animaliak. Hau dela eta, sarritan galdetu ohi genion geure buruari ba ote den gure herri inguruan ugaztun basatirik, eta egotekotan, zeintzuk diren? nolakoak diren? zeintzuk diren bere ezaugarri nagusiak eta ohiturak? ... ea.

Denek susmatzen dugun modura, egon badaude. Zenbaitek pentsatzen duten baino gehiago. Gakoa zera da, animalia horien sentimen zorrotzek arriskutsu gerta daitekeen edozein izaki handiren presentziak ohartzen dietela eta berehala, isilean eta ezkutuan, ihes egiten dutela. Bestalde, askotan gertatu ohi da animalia hauen ondotik pasatzea eta guk ez ikustea, duten inguruarekiko imitaziozko kamuflaiak, geldirik

daudela, guretzat ikuskaitz bihurtzen dituztelako. Beste espezie batzuk, aldiz, gautarrak dira eta egunez zaila izaten da ikustea beraien gordelekuetan lotan daudelako. Egoera honi, guk naturarekiko dugun ohitura-eza gehitu behar zaio. Ohitura-eza honek, nolabait, "itsu" bihurtzen gaitu, eta mendi eta basoetan ibiltzean, begi aurrean izan arren, ez ditugu animalia horiek uzten dituzten seinale eta aztarnak "ikusten".

Zuetako askori hemen aurkeztera goazen ugaztun basati gehienak izenez ezagunak izango zaizkizue, baina gutxik izango zenuten horietariko batzuk ikusteko aukera (hemendik datorkio artikulu honi bere izenburua), zaila baita beraiekin



EGAGROPILA

topo egitea. Hurrengo lerro hauen asmoa, Hernani inguruan aurki daitezkeen ugaztun basati esanguratsuenetariko batzuk ezagutzea ematea eta beraien ezaugarri eta ohitura nagusienak azaltzea da. Horrekin batera bere arrasto-markak eta gorozkien eta kaskezurren irudiak aurkezten dizkizuegu, hauek baitira sarritan animalia hauen presentziaren adierazgarri aurkituko ditugun marka bakarrak eta. Zenbaitzuk naturan ugaztun hauen kaskezurrak aurkitzea zaila dela pentsatu arren, ez da hain arraroa espezie horien ohiko harrapariek, hegazti harrapariek (hontzek, arranoek... ea), animalia horietatik liseritu ezin dituzten gorputz-zatiak, hots, ilea, azala eta hezurak, "egagropila" izeneko bola eratuz ahotik kanporatzen baitituzte. Hori dela eta nahikoa izaten da hainbat harkaitz zulotako egagropilak aztertzea, animalia horien presentzia baieztatzeko.

Lehenengo atal honetan intsektiboroak eta karraskariak ordeneko animalia batzuen ezaugarri nagusiak aurkezten ditugu. Espezie hauek tamaina txiki eta ertainekoak dira eta nahiko erraza da beraiekin topo egitea. Hernani inguruan arruntenetarikoak honoko hauek dira: satitsu arrunta, trikua, satorra, katagorria eta muxarra.


SATITSU ARRUNTA *Cronidura russula*



SATITSU ARRUNTA (Ordena: Intsektiboroak)

Gaztelaraz "musaraña" izenez ezagutzen dugun satitsuaren izen zientifikoa *Cronidura russula* da. Belardiak nahiago ditu eta bere ezaugarri morfologiko esanguratsuenen mutur zorrotz eta zeharo mugikorra da. Tamainaz inguru hauetan aurki daitezkeen ugaztun txikienetariko bat dugu: gorputzaren luzera 5-10 cm-koa, isatsarena 3-5 cm eta pisua 5-15 g bitartekoak ditu. Bizkarraldea kolore grisaskakoa du eta behekaldea, ordea, gris argia.

Usaimena eta entzumena ikaragarri zorrotzak ditu. Aktiboa da bai egunez eta bai gauez. Hala ere, egunsentian eta iluntzean aurkitzeko aukera gehiago dago eguneko ordu horietan baita aktiboena. Bere elikadura ornogabe txikiek osatzen dute, hala nola: zizareek, marraskiloek, armiarmek, intsektuek eta horien larbek.



2 CM.



0,7 CM.



Narrastien modura, bere gorputzeko temperatura kanpokoaren berdina mantentzen duten animaliek ("odol hotzeko" animaliek edo poikilotermoe), asteak bota ditzakete ezer jan gabe; bere barne-inguruko temperatura konstante eta kanpoko temperatura fluktuazioez independentea mantentzen dutenek ordea ("odol beroko" animaliek edo homeotermoe), horien artean geu ugaztunok, energia asko behar dugu soinearen temperatura mantentzeko, eta beharrezkoa dugun energia elikagaietatik lortu behar dugu. Zenbat eta txikiagoa izan animalia, proportzioan elikagai gehiago beharko du, gorputz txikiek proportzionalki gorputz handiek baino bero-galera handiagoa pairatzen baitute. Satitsu arruntak bere pisua adina ehizaki jan behar du egunero bizirik iraun ahal izateko. Hori dela eta, satitsuaren lehentasunetatik lehena janaria aurkitzea da eta egun osoa ematen dute ehizan (hamabi ordutan jaten ez badu gosez hiltzen da, hain da larria arazoa). Arazo hori ekiditeko, ugaztun basati txikiek elikagaiak gordetzeko joera garatu dute, habitat gehienetan, gurea barne, ez baitago urte osoan zehar janaria lortzerik. Satitsuak jaki gehiegi bilatuz gero (hazi multzo bat, esaterako) gorde egingo du. Elikagaia garraiatzeko ahoa eta masailak jakiz betetzen ditu eta, beharrezkoa izanez gero, bidaia bat baino gehiago eginez, bere habira eramango du. Habiak esfera forma izaten du eta lurrian kokatua egoten da, belar trinkoen artean.

Espezie hau listu pozoitsuz hornituta dago eta bere hozkada pozoitsua da tamainu txikiko animalientzat. Pozoi hori bere ehizaki diren ornogabeak akabatzeko erabiltzen du gehienetan, baina arriskuan baldin bada,

babesbide modura ere erabil dezake; bere eragina handia ez izan arren, aski izan daiteke zenbait etsai etsiarazteko. Bestalde, isatsaren ondoan dituen guruinetatik, lurraldea markatzeko erabiltzen duen substantzia usaintsu bat jariatzen du, eta hori ere defentsa gisara erabiltzen du hainbat harrapakiren erasoari aurre egiteko. Ezaugarri horiek direla eta, etxeko katuak sarritan hiltzen du satitsua, baina ez du jaten, bere usain eta zapore txarrarengatik.

Animalia horren beste ezaugarri bitxi bat amak kumeak garraitzeko modua da. Kumeak, iladan jarrita elkarri lotzen zaizkio, lehengo amaren isatsari eta besteak aurretik doanaren isats muturrari ahoarekin helduz, eta horrela, leku batetik bestera ibiltzen dira.




TRIKUA *Erinaceus europaeus*

TRIKUA

(Ordena: Intsektiboroak)

Trikuak, *Erinaceus europaeus*, 25 cm inguruko luzera duen gorputz sendoa eta pisutsua du. Matur zorrotzekoa, belarriak txikiak eta borobilak, eta isatsa laburra (3cm-koa gutxi gora-behera). Gure baso eta landetako ornogabeen populazioa kontrolatzeko hain beharrezkoa den espezie honen defentsa, alderdi guztietara zuzenduriko 2-3 cm bitarteko arantza zorrotzak dira. Mehatxua somatzen denean kiribildu egiten da, burua, hankak eta isatsa izkutatu, arantza horiek alderdi guztietara zuzenduz, eta horrela irauten du arriskua aldendu arte.

Orojalea da. Bere dieta suge, ornogabe txiki (zizare, marraskiloak, ...ea), fruitu, baia, ezkur eta hegazti-arraultzez osaturik dago. Normalean gauez



6 CM.



3 CM.



5 CM.

ibiltzen den animalia da; eguna sasi dentsoen azpian egindako hosto lehorrezko habian lo egiten pasatzen du. Ikusmen eskasa duen arren, usaimen zorrotza du. Korrikalari trebea da eta ikaragarri arin mugi daiteke. Horrez gain, zuloak egiteko, handiegiak ez diren oztopoak gainetik jauzteko eta behar izanez gero igerian egiteko gai da ere. Dena den ez du zuloak egiteko ohitura gehigirik, ez eta arboletan gora egiteko joerarik ere.

Apiriletik irailera aktibo agertzen da. Urrian hasi eta martxora bitartean hibernatu egiten du. Garai horretan bere gorputzeko temperatura ingurugiroko temperaturara jeitsi egiten da (inoiz ez 4° tik behera), eta bihotzaren iharduera eta arnas-frekuentzia minutuko 20 taupadaraino eta 10 arnasteraino jeisten du hurrunez hurrin.

Trikua askotan ikusi ohi da usain txarreko zerbait mastekatu (hildako apoa esaterako), eta ondoren listu kiratsua arantzetan zabaltzen. Uste da defentsa gehigarri modura erabiltzen duela, kiratsa horren bitartez harrapariarentzat oraindik higuigarriago izateko. Triku-kumeak gazteak direnean beraien joan-etorriak amaren atzetik arrenkan egiten dituzte. Errepideetan asko hiltzen dira automobilek harrapatuta. Bere instintoari jarraituz, automobilaren mehatxua sentitzen dutenean, ihesari eman beharrean, kiribildu egiten direnez, asko eta askok hilik amaitzen dute.

SATORRA *Talpa europaea*



SATORRA

(Ordena: Intsektiboroak)

Talpa europaea izeneko ugaztun honek lurpeko bizitzara guztiz moldaturiko morfologia agertzen du. Gorputz sendo eta zilindrikoa, mutur zorrotz eta mugikorra, ia atrofiaturiko begi txikiak, eta pala formako esku sendoak, aldeetara orientaturik eta hazkazal indartsuz horniturik lurra saihetsetara eta atzealdera botatzeko. Hile beltz motz-motza eta trinkoa, belarri-pabeloirik ez izatea eta isatsa potoloa eta laburra, animalia honen beste ezaugarri morfologiko nabari batzuk dira. Tamaina, isatsa kontuan hartu gabe, 10 eta 16 cm bitartekoa da eta 50-120 gramoko pisua izaten du.

Lurrazpiko bizimoduak (bizimodu hipogeoak) zentzu-organo bereziak eskatzen ditu. Honela, ukimena eta usaimena oso garatuak ditu. Horretarako muturrean eta isats-puntan bibrazioak detektatzeko ukimen-ileak ditu; horiekin aurkitzen ditu harrapakinak.

Ohiko bizilekuak belar-soro, baso, baratze, lorategi eta antzekoak dira. Leku horietan, 100 metrotarainoko luzera izan dezaketen galeria eta ganbaraz osotutako sistema konplexuak eratzen ditu, metro bat edo gehiagoko sakoneran. Satorrak, elikagai gehienak galeriak konpontzen gora eta behera dabilela lortzen ditu, bertara erori edo sartzen diren zizareak, harrak eta intsektu-larbak jenez. Tamainu txikiko ugaztun guztietan gertatzen ohi den eran, bere premia metabolikoak asetzeko, satorrak ere bere pisua adina elikagai irentsi behar du egunero. Bestalde, espezie honek ez du hibernatzen eta neguan ornogabe eta intsektuen kopurua murriztu egiten denez, urte-saso hori igarotzeko udazkenean janaria bildu eta gorde egiten du ganbara batean; erreserba hau zizareaz osaturik egoten da. Gehienoi ezaguna izango zaizuen prozesu hori burutzeko, burua txikitzen die zizareei, horrela bizirik mantentzen ditu baina ez dira ihes egiteko gai.

1,8 CM.



3,5 CM.

Ikustea zaila den arren, satorra detektatzea erraza da, nahikoa da soro edo belaze batean galeriak egiterakoan kanpora ateratzen dituen lur pilaketak ikustea (sarritan habia soroan dauden lurrezko pilaketen arteko "meta" handienarekin koinziditzen du). Hori dela eta, nekazariek animalia kaltegarritzat hartzen dute, bere soro eta belardietarako batez ere. Dena den, satorraren garrantzi ekologikoa handia da, lurra oxigenatzen eta nahasten laguntzen baitu.


KATAGORRIA EDO URTXINTXA

(Ordena: Karraskariak)

Espezie hau, *Sciurus vulgaris*, gure basoetako karraskaririk ikusgarriena eta, agian, erakargarriena da. Zuhaitzetatik abiada handian gora eta behera liraintasunez ibiltzen ikusten dugunean, benetan ikuskizun bikaina izaten da. Bere ezaugarri morfologiko nagusienek,

KATAGORRI *Sciurus vulgaris*





5,5 CM.



KATAGORRI
GOROTZAK



1,5 CM.



KATAGORRIAK KARRAKATURIKO PINAZIA ETA URRAREN AZTARNAK

motots tankerako isats luzeek eta belarri tente-tenteek, oso atsegina bihurtzen dute animalia hau. Gorputzaren kolorea marroi ilunetik, gorriska argirainokoa izan daiteke; sabeleko aldea ordea beti zuria da. Isatsa adarretan zehar mugitzen denean oreka-organo modura erabiltzen du.

Katagorria egun osoan aktiboa da, baina ikusteko egun sentian eta ilunabarrean izaten dira une onenak, ordu horietan baita aktiboagoa. Zuhaitzetan bizitzeko moldaturik dagoen animalia denez, denbora gehiena bertan ematen du, baina zoruan ere aritzen da janari bila. Arriskurik somatzen badu enborraren kontra geldirik geratzen da bere buztan luzea bizkarraren kontra ipiniaz. Zuhaitzetik jeisteko orokorrean buruz behera egiten du. Bere dieta, hazi, fruitu lehor, gaztain, ezkur, onddo eta pinaburuz osaturik dago; azken horiek hankaz hartu eta hortzekin karraskatzen ditu haziak jateko libre gera daitezten. Elikagai horiek urte osoan aurkitzen ez direnez, jaki-eskuragarritasun handieneko garaietan elikagai-biltegiak osatzen ditu, gero eskasia dagoen garaietan erabiltzeko.

Katagorriak hibernatzen ez duen arren, loaldi luzeak egiten ditu. Hori dela eta, neguan ere aktiboa izaten da, eguerdi aldean batez ere, jan gabe ezin baitu egun batzuk baino iraun. Katagorria baso mota desberdinetan bizi daiteke, bai baso hostogalkorrezkoetan, bai hostoegonkorrekoetan. Gure herri inguruan ordea, errazagoa da hain maiz agertzen den birlandatutako *Pinus insignis* pinudietan aurkitzea, oso gustokoa baitu zuhaitz espezie hori. Pinu horietan adartxo eta hostoz eraikitzen du habia, ia futbol-baloi baten tamainukoa.


1984eko uztaila geroztik Euskal Herrian espezie hau babesturik dago eta ehizatzea debekaturik dago.



MUXARRA

(Ordena: Karraskariak)

Glis glis izen zientifikoz (gaztelaraz "lirón") ezagutzen den karraskari honek gure herri inguruko zenbait hormeko eta zuhaitz zaharreko zulogunetan izaten du habia. Animalia txikia da, gorputza 15 cm ingurukoa, eta ilea kolore grisekoa. Bere ezaugarri deigarrienak bere begi eta isats handiak dira. Buztana gorputzaren tamainukoa izatera iristen da eta ezaugarri morfologiko hori dela eta, katagorriaren antzerakoa dugu muxarra. Bereziki landarejalea da eta bere dieta ezkurrek, pagatxek, urrek, intxaurrek... ea.ek osatzen dute. Animalia arborikola eta gautarra dugu, eta "dormir como un lirón" gazteleniaz hain ezaguna den esamoldea animalia honek hibernatzeko azaltzen duen ahalmenarekin loturik dago. Honela urteko sei hilabete (urritik apirilera bitartean) lotan pasatzen ditu, ekintza horretarako bereziki prestaturiko habian. Hibernazioan bere metabolismoa balio minimoetara jeisten da: barne-tenperatura 35°-tik 1°-tara, minutuko bihotz taupadak 450etik 35era eta arnasketa erritmoa orduko arnaste bat bakarrera. Hibernazioa burutu aurretik bere masa asko handitzen du (intxaurrek eta hazi desberdinak janzte batez ere) energi-aportazio bikainez oheratzeko, udaberrian esnatu baino lehen bere hasierako pisuaren %50 galduko du eta.



Erroma zaharrean animalia oso preziatua zen, bere haragiaren zapore gozoagatik eta bere gantzak erreumaren kontrako sendagaiak egiteko erabiltzen zirelako.

Guk azaldutako informazioa animalia horiek "detektatzeko" baliagarria izango zaizuela uste dugu. Dena den, pazientzia pixka bat izan behar da. Zorte on! ♦

BIBLIOGRAFIA

- *Guía de campo de los mamíferos españoles para biólogos y amantes de la Naturaleza*. Luis Blas Aritio. Ediciones Omega, Barcelona, 1984.
- *Euskal Herriko fauna (ornodun lehortarrak) Anfibioak, narrastiak, hegaztiak, ugaztunak*. Jon Larrañaga. Elhuyar kultur-elkartea, 1996.
- *Huellas y señales de los animales de Europa*. Preben Bang eta Preben Dahlström. Ediciones Omega, Barcelona, 1992.
- *Euskal Herriko ugaztunak*. B. Beatriz Canton, Maria Nieves Diaz eta Maria Cristina de Pablo. Kriselu, Donostia, 1992.
- *Manual de los mamíferos de España y de Europa*. Gordon Corbet eta Denys Ovenden. Ediciones Omega, Barcelona, 1982.
- *Ugaztunak*. Steve Parker. Ediciones Altea, Madrid, 1991.
- *"Muxar grisa, oihanetako iratxoa"*. Jose Ramon Aihartza. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 45. zkia., 56-57 or.
- *"Sator arrunta, zizareen malura"*. Migel Mari Elozegi. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 100. alea., 22-23 or.
- *"Satitxu arrunta. Gure arbasoen oinordeko txikia"*. Jose Ramon Aihartza. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 66. zkia., 25-27 or.
- *"Katagorria, akrobata xarmangarria"*. Jose Ramon Aihartza. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 61/62. zkia., 49-51 or.